

Ingurune ekonomikoa

BPGd osagaien arabera. Aldaketa-tasa⁽¹⁾

	URTEKOA		HIRUHILEKOKOA				
	2006	2007	II-2007	III-2007	IV-2007	I-2008	II-2008
Nekazaritza	-4,4	9,8	15,5	-0,2	14,9	5,3	-0,2
Industria	4,2	4,0	4,8	3,9	2,2	1,8	1,4
Eraikuntza	4,2	4,6	5,0	4,9	3,3	2,4	1,1
Zerbitzuak	4,5	4,2	4,0	4,1	4,6	3,6	3,4
Kontsumoa	3,8	3,8	3,7	3,8	3,7	2,9	2,2
K.E.G.⁽²⁾	5,9	5,5	6,0	5,4	4,0	3,1	3,2
Eskaria	4,4	4,4	4,4	4,4	3,9	3,0	2,5
Esportazioa	6,2	7,6	8,5	8,6	7,1	6,9	9,0
Inportazioa	6,1	7,6	8,1	8,9	7,2	6,6	8,2
BPGd	4,4	4,1	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6

Iturria: Eustat. (1) Bolumen kateatua. (2) Kapital-eraketa gordina

2008. urteko bigarren hiruhilekoan Euskadiko ekonomiak %2,6ko hazkundea izan du urtetik urtera. Horrela, 2007. urteko bigarren hiruhilekoan hasitako dezelerazioko joerak jarraipena izan du. Hala ere, nabarmendu behar dugu ezen, gure ekonomiak indarra galdu arren (bost hamarreneko dezelerazioa aurreko hiruhilekoaren aldean), honek, oraindik ere, Estatu osoari (%1,8) eta, neurri handiago batean, Euroaren Eremuari (%1,4) dagokiena baino dinamismo nabarmen handiagoari eutsi diola.


Eskariari kasu eginez, bi alderdi nabarmendu behar ditugu: batetik, barruko eskariaren uzkurdura (%2,5eko igoera bigarren hiruhilekoan lehenengo hiruhilekoan egondako %3ko

gorakadaren aurrean), kontsumo pribatuaren dezelerazioaren ondorioz (%1,4ko hazkundea aurreko hiruhilekoaren %2,4koaren aldean). Izan ere, kontsumo publikoak (%5,6), zein inbertsioak (%3,2) igoera-erritmoa bizkortu dute aurreko hiruhilekoaren aldean (%5,1 eta %3,1, hurrenez hurren). Horrela bada, barruko eskariak 2006. eta 2007. urteetako hiruhilekoetan izandako hazkundea baino txikiagoa izango da, argi eta garbi. Bestaldetik, kanpoko sektoreak BPGdaren hazkundearen egindako aldeko ekarpena ere nabarmendu behar dugu (hamarren bateko ekarpena, aurreko hiruhilekoaren zenbateko berbera), esportazioek zein inportazioek hedapen-erritmoa lehenengo hiruhilekoaren aldean bizkortu duten testuinguru batean (%9 %6,9aren aurrean eta %8,2 %6,6aren aurrean, hurrenez hurren).

Eskaintzaren perspektiba kontuan harturik, hirugarren sektoreak baino ez du batez bestekoaren gainetiko hazkundea eduki. Industriako sektorea keta eraikuntzak, berriz, hazkunde apalagoak izan dituzte. Azkenik, lehenengo sektoreak atzerakada txikia izan du (%-0,2). Halaber, nabarmendu behar dugu jarduerako lau adar handiek ekitaldiko lehenengo hiruhilekoan baino hazkunde txikiagoak izan dituztela. Zentzu horretan, eta nekazaritza eta arrantzako sektorea alde batera utzita, dezeleraziorik handiena eraikuntzan gertatu da. Horrela bada, hau lehenengo hiruhilekoan %2,4ko igoera izatetik bigarren hiruhilekoan %1,1era igaro da. Industriari, berriz, bere hazkundea lau hamarrenetan murriztu du (%1,4 aurreko hiruhilekoaren %1,8aren aurrean), baina zerbitzuek ez dute bere hazkundea batere gutxitu (%3,4 aurreko hiruhilekoaren %3,6aren aurrean). Azkeneko alderdi honi dagokionez, azpimarratu behar dugu hirugarren sektoreak duen nolabaiteko portaera ona ez-merkatuko zerbitzuetan indarrari eusteagatik gertatu dela (%6,5eko igoera lehenengo hiruhilekoan zein bigarrean).

Enpleguaren egoera


Biztanleria aktiboa, okupatua eta soldatapekoa (EAE, milaka pertsona)



* Fuente: Eustat.

Aurreko hiru hilabetetan ikusitakoaren antzera, II. hiruhilekoan biztanleria aktiboa hazi da urtetik urterako terminoetan (%2). Biztanleria okupatuak, berriz, %1,9ko igoera izan du, (%0,3koa Estatuan), eta biztanleria langabetuak, aitzitik, beheranzko joera hautsi du. Horrela bada, %4,7 hazi da eta, guztira, 35.500 langabetu egon dira. Ildo horretatik, 2008. urteko bigarren hiruhilekoko langabezia-tasa handitu da eta %3,5koa izan da (%10,4 Estatu osoan). Egondako langabeziari dagokionez, apirilean eta ekainean zehar %8,5 handitu da urtetik urtera. Azkenik, arlokako azterketak erakusten du bigarren hiruhilekoan okupazioa handitu dela sektore guztietan, industriakoan izan ezik (%-0,4): %3,3 eraikuntzan, %2,7an zerbitzuetan eta %1,7 lehenengo sektorean.


Soldatapeko biztanleria kontratu motaren arabera (banaketa %tan)



Soldatapeko biztanleria hazi da urtetik urterako terminoetan (%2,6). Horrela, 802.300 pertsona izan dira urteko bigarren hiruhilekoan. Horietatik %77,1ak kontratu mugagabea du, %20,4ak aldi baterako kontratua, eta gainerako %2,5a kontraturik gabeko pertsonak eta bestelako egoerak dira. Horrela, behin-behinekotasunak bilakaera apur ba taldekoa izaten jarraitzen du. Bestaldetik, INEMen erregistratutako kontratazioari kasu eginez gero, apirila eta ekaina bitartean erregistratutako kontratazio osoaren uzkurdurako testuinguruan (%-2,1), kontratazio mugagabea handitu da (%7,6) eta aldi baterako kontratazioa, berriz, gutxitu da (%-2,9).

Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboaren jarraipena
(EAEko negoiazio kolektiboak eragindako 607.071 pertsona)




- BERRITU GABEKO HITZARMENAK:** Indarraldia bukatuta duten eta azterlanaren xede den hila arte berritu ez dituzten hitzarmenek eragindako langileak. 499 hitzarmen dira.
- 2008. URTEAN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK:** 2008. urtean zegar erregistratuta eta urte honetarako ere indarrean zeuden hitzarmenek eragindako langileak (hilabetez hilabete metatutako baloreak). 160 hitzarmen dira.
- AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK:** 2007. urteko abenduaren 31 arte erregistratu eta 2008. urterako indarrean zeuden hitzarmenek, urte aniztetakoek, eragindako langileak. 370 hitzarmen dira.

Iturria: Guk egina, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren informazioarekin

2008. urteko lehenengo hiruhilekoan 160 hitzarmen egon dira. Hauek 74.115 pertsonarengan eragin dute (%12,2). Urte honen hasieran negoiazio kolektiboak lotutako pertsona guztien %48,5aren gainean eragin zuten hitzarmenak zegoeneko berrituta zeuden. Hori dela kausa, oraindik, %39,3ren hitzarmenak berritzeke gelditzen dira. Hala ere, ehuneko txikiagoa izango litzateke Estatutuz kanpoko hitzarmenak aintzat hartuz gero (Arabako metalarena adibidez). Horri dagokionez, uztailan Bizkaiko sektore horretako estatutuz kanpoko hitzarmena ere sinatu zuten. Araban berritu gabe daude sektoreko 8 hitzarmen, hauen artean elikadurako merkataritzarena nabarmentzen da. Bizkaian sektoreko 23 hitzarmen falta dira, horien artean egurraren industria dago (berritu gabe 2003. urtetik), baina beste batzuk berritu gabe daude duela denbora gehiagotik, hala nola abokatuen bulegoak (2000. urtetik), ile-apaindegiak (2001. urtetik), erakuntzarako materialak (2002. urtetik) eta beira lauaren manufaktura (2002. urtetik). Gipuzkoan sektoreko 25 hitzarmen berritu gabe daude, baina horietatik 12 2003. urtetik edo lehenagotik berritu gabe daude. Negoiazio kolektiboaren egoera, oro har, azkeneko urteotan baino aldekoagoa da, izan ere, hitzarmen berritua duten pertsonen ehuneko handitu da 2007. urteko aldi beraren aldean. Hala eta guztiz ere, akordioak lortzeko zailtasunok handiak dira eta, horregatik, negoiazioko prozesuen iraupena luzea da: 2008. urtean

erregistratutako sektoreko hitzarmenetan, batez beste, 406 egun izan dira. Enpresako hitzarmenetan ere, %47a sinatu gabe daude. Hauek esparru honetan lan egiten dutenen %50an eragiten dute. Edukiari dagokionez, nabarmentzen da Legeak bultzatutako berdintasuneko planen azterketa sartzan hasten direla (adibidez: Endesa) baita lan-bizitza eta familiakoaren arteko adiskidetzeara ere, Iberdrola enpresaren hitzarmenean bezalaxe.

Itundutako soldata-igoeren eta inflazioaren bilakaera




(*) 2008. urteko ekainaren 30 arte erregistratutako hitzarmenetan

Berritutako hitzarmenetan adostutako soldata-igoera (batez bestekoa langile kopuruaren arabera haztatuta) %4,50ekoa izan da, Estatu osokoa baino handiagoa (%3,47), bi kasutan soldata-berrikuspenaren baldintzen ondorioak erantsi gabe daudela kontuan harturik. Nabarmendu behar dugu 2007. urterako itundutako igoeraren aldean gorakada gertatu dela (%4,23). Hazkunde hori, funtsean, urtetik urterako inflazio-tasa handitu izanaren ondorioa da, berau baita gehien bat erreferentziatzen hartzen dena. Nolanahi ere, oraindik ere, hitzarmen hauek arapetutako pertsonen erosteko ahalmenaren hobekuntzak gertatzen ari dira, betiere hori estimatzeko azkeneko hamabi hilabeteetako batez bestekoa erabiliz gero. Eremu funtzionalei kasu eginez, adierazi behar

dugu ikus daitekeela sektoreko hitzarmenetan itundutako soldata-igoera (%4,69) enpresakoa baino handiagoa izan dela (%3,55). Lurraldean arabera, Gipuzkoa eta Bizkaia igoerarik handienak izan dituzte (%5 baino handiagoak bi kasutan), sektore jakin batzuetan lortutako akordioengatik. Arreta EAEn bakarrik erregistratutako hitzarmenetan jarriz gero, itundutako soldata-igoera %5,02koa izan da, EAEn eragina duten estatuko hitzarmenetan itundutakoa baino nabarmen handiagoa (%2,79).

Hitzarmen kolektiboan itundutako lanaldiaren murrizketak



(*)2008. urteko ekainaren 30 arte erregistratutako hitzarmenetan

Lanaldiari dagokionez, ikus dezakegu honen murrizketak xedatzen dituzten hitzarmenen ehunekoa geroz eta txikiagoa dela (berritutako hitzarmenen %26,4a). Ohikoa izaten ari denez, EAEn erregistratutako hitzarmenetan da murrizketa erabakitze duten hitzarmenen ehunekoa handiagoa denean (%33,6), eta EAEn eragina duten estatuko esparrukoetan, berriz, kopuru hau %13,5a arte murrizten da. Erabakitako murrizketaren zenbatekoa (urteko ordubete 2007ko lanaldiaren aldean) 2007. urtean indarrean zeuden hitzarmenetan erabakitakoa baino txikiagoa izaten ari da eta orain dela urte batzuk erabakitako murrizketak baino nabarmen txikiagoak, erantsitako grafikoan ikus daitekeen bezalaxe. Kontuan

hartu behar dugu hitzarmen asko berri gabe egotearen ondorioz, esparru horietan lanaldia formalki aldatu gabe mantentzen dela eta kasu batzuetan duela urte askotatik. 2008. urterako berritutako hitzarmenetan, itundutako batez besteko lanaldia 1.703 ordukoa izan da, 1.709 ordu sektoreko hitzarmenetan eta 1.671 enpresako hitzarmenetan. Halaber, EAEn eragina duten estatuko esparruko hitzarmenetan adostutako batez besteko lanaldia (1.711) EAEn erregistratutako hitzarmenetan ezarritakoa (1.700) baino handiagoa ere bada.

Lan-gatazkak

EAEn egindako lan-grebak (behin-behineko datuak)

		2003	2004	2005	2006	2007	2008(*)
ARAB A	Grebak	38	41	36	57	42	32
	Parte-hartz.	6.883	11.680	6.274	6.359	4.916	3.024
	Lanegunak	43.795	47.338	32.990	12.036	7.940	4.492
BIZ-KAIA	Grebak	118	116	85	109	91	69
	Parte-hartz.	24.043	47.620	39.817	44.543	27.873	17.371
	Lanegunak	128.75	197.233	56.673	122.216	68.507	26.982
GIPUZ-KOA	Grebak	65	86	55	58	71	41
	Parte-hartz.	43.868	41.758	7.025	11.675	13.703	7.265
	Lanegunak	167.31	361.584	16.525	34.181	36.050	14.855
EAE	Grebak	221	243	176	224	204	142
	Parte-hartz.	74.794	101.058	53.116	62.577	46.492	27.660
	Lanegunak	339.86	606.155	106.188	168.433	112.497	46.329

2008. urteko aurreneko sei hilabeteetan EAEn, guztira, 142 greba egon dira. Hauetan 17.660 lagunek parte hartu dute eta lan egin gabeko 46.329 lanegun egon dira. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, aipatutako zenbatekoek greba kopurua handitu dela erakusten dute (%11,8), baina parte-hartzaile kopuruan (%-13,7) zein lan egin gabeko lanegunetan (%-47,8) beherakada egon dela ere.

Greben arrazoiari dagokionez, hauen %55a gertatu dira negoziazio kolektiboan egondako desadostasunengatik, eta hauek izan dira eragin handiena izan dutenak, izan ere, hauek ekitaldiaren lehenengo erdialde honetan lan egin gabeko lanegunen %75a eragin dute. Halaber, azpimarratzekoa da hitzarmenaren negoziatuetatik kanpoko

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza
Lanegunak: Lan egin gabeko lanegunak. (*) Urtaril-ekaineko aldia

soldata-igoeren hobekuntzengatik greben beste %18 bat gertatu dela eta hauek lan egin gabeko lanegun guztien %13a eragin dutela.

Egindako greben esparruari begiratzuz gero, enpresako esparrukoek garrantzi handiagoa izan dute, izan ere, 136 enpresakoak izan dira eta 6 sektorekoak, eta azken hauek lan egin gabeko lanegun guztien %12a eragin dute. Enpresako esparrukoaren artean %66,7a sektore pribatukoak dira eta hauek esparru honetako lan egin gabeko lanegunen %61,6a eragin dute. Oraingo honetan, pertsona kopuru txikiagok parte hartu duten sektore pribatuan egindakoek (8.960 parte-hartzaile sektore pribatuko grebetan eta 13.048 sektore publikoetan) eragin nabarmen handiagoa izan dute parte-hartzaile bakoitzeko lan egin gabeko lanegunetan.

Lurraldean araberako azterketak lan-gatazken bilakaera homogenea egon dela erakusten du. Horrela, greba kopurua %21,1 handitu da Bizkaian eta %18,5 Araban, eta %4,7 murriztu dira Gipuzkoan. Parte-hartzaileei dagokionez, hauek %24,1 gutxiago izan dira Gipuzkoan eta %13,4 gutxiago Bizkaian, Araban, aldez, %25,8 gehiago izan dira. Azkenik, greba bakoitzean lan egin gabeko lanaldiak gutxiago dira modu orokorrean: %50 Gipuzkoan, %49,8 Bizkaian eta %14 Araban. Hortaz, ikus dezakegu Gipuzkoan egondako greba kopuruak izan ezik, eta parte-hartzaileenak Araban izan ezik, gainerako aldagaiek zentzu bereko bilakaera izan dutela hiru lurralde historikoetan eta EAE osoan.

Enplegu-erregulazioko espedienteak

Euskal Administrazioak baimendutako enplegu-erregulazioko espedienteak

	Espedienteak (1)	Eragindako langileak ⁽¹⁾			
		Guztira	Murrizketa	Etendura	Amaitzea
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007	282	4.815	17	3.856	942
2008(*)	112	1.892	20	1.199	673


(1): Euskal Administrazioak baimendutako espedienteak. (*) Ekaina arte metatutako datuak. **Iturria:** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Eusko Jaurlaritzia.

2008. urteko lehenengo sei hilekoan zehar EAEn, guztira, enplegu-erregulazioko 112 espediente egon dira. Hauek, guztira, 1.892 langilerengan eragin dute. Ondorioz, %28,2 eta %16,3ko murrizketak egon dira, hurrenez hurren, aurreko ekitaldiko aldi berearen aldean. Adierazi behar dugu etendurako espedienteek eragindako langileak murriztu direla (%-28,6), murrizteko espedienteek (%122,2) zein amaitzeko espedienteek (%17,9) eragindakoak, aldiz, handitu dira. Azkeneko hauek 1.199, 20 eta 673 langile izan dira, hurrenez hurren. Espedienteak, arrazoi izan diren kausaren arabera, aztertuta, finantza eta eskarikoak ez diren bestelako

kausengatik eragindakoak ugariagoak izan dira kopuruari dagokionez (45 espediente, 442 langilerengan eragiten dutenak), eta murriztu dira aurreko ekitaldiari dagokionez (%62,5eko murrizketa espediente kopuruan eta %72,3koa eragindako pertsona kopuruari dagokionez). Aitzitik, hala finantzako kausengatik eragindako espedienteak (41 espediente, 646 langilerengan eragiten dutenak) nola eskariko arrazoiengatik eragindakoak (26 espediente, 804 langilerengan eragiten dutenak) hazi dira aurreko ekitaldiaren aldean (%46,4 eta %225 kopuruari dagokionez eta %75,1 eta %173,5 eragindako langileei dagokionez, hurrenez hurren). Azpimarratzekoa da espediente hauek eragindako pertsonen %72,8a (1.378 pertsona) industriako sektorekoa dela; eta bere ondorioak, gehien bat, enpleguaren aldi baterako eteteak izan dira (780 pertsona), hala ere, 580 pertsonari bere kontratuak deuseztatu dizkiete. Zerbitzuek espedienteen %33a hartzen dute (eragindako enpleguaren %15a, 279 pertsona) eta oraingoan ere bere ondorioak, batik bat, aldi baterako eteteak izan dira (225 pertsona) eta 52 pertsonari bere kontratuak deuseztatu zaizkie. Eraikuntzan espedienteen %9a gertatu da (eragindako enpleguaren %12a) zehazki 234 pertsona eraginda gertatu dira, horietatik 193 enpleguaren aldi baterako eteteak izan dira eta gainerakoek bere lan-kontratuak deuseztatuta ikusi dituzte.

Lan-istripuak¹

Baja hartu duten istriputen aldaketa (%tan) aurreko urtearen aldean



(*) Ekaina arte pilotutako datuak. **Iturria:** Osalan.

2008. urteko lehenengo sei hilekoan baja hartu duten istripututako langileen kopurua EAEn (26.754, lanaldiko istripuak, in itinerekoak eta gaixotasun profesionalak barne) %1 murriztu da urtetik urtera. Adierazi behar dugu beherakada hori gertatu dela lanaldian eragindako pertsonak gutxiago izan direlako (23.430), hauek %3 gutxiago izan direlako, eta in itinere eragindako pertsonak ere jaitsi dira (2.398), %2,7. Eta gaixotasun profesionalak eragindakoak, berriz, (926), 132,7 hazi dira.

Azterketa baja hartu duten lanaldian istripututako pertsonengan jarritz gero, sektoreen arabera azterketak erakusten da istripuen beherakada orokorra gertatu dela sektore guztietan, hirugarren mailako sektorean izan ezik. Horrela, eraikuntzan, (4.058 pertsonak istripua izan dute) atzerakadarik handiena

gertatu da, %8,4koa alegia. Jarraian, lehenengo sektorea dago, honetan istripua 450 pertsonak izan dute, %6,6ko beherakada hain zuzen. Ondoren, industriako sektorea dago. Honetan 9.674 pertsonak izan dute istripua eta %3,9ko jaitsiera egon da. Zerbitzuen sektoreak, aldiz, (9.248 pertsonak istripua izan dute) %0,8ko igoera izan du. Istripuen larritasunari dagokionez, 2008. urteko ekaina arte, istripu arinak (23.265, %2,8ko beherakada) zein larriak (140, %26,7ko beherakada) izan dituztenak gutxiago izan dira, eta istripu hilgarriek eragindakoak, aldiz, (25) handitu dira (%19).

Istripuen aipatutako bilakaera enplegu-hazkundeko testuinguru batean sartzen da. Horrela, istripuak biztanleria okupatuaren bilakaerarekin lotuz gero (lanaldian istripuak izandakoak mila pertsona okupatuko), ikus dezakegu istripuen intzidentzia jaitsi dela. Zehazki, lehenengo sei hilekoan 24,1 istripu egon dira lanaldian mila okupatuko (25,2 2007. urteko aldi berean). Joera hau orokorra da arloko azterketan. Lehenengo sektorean indize hau lanaldiko 36,7 istripura iristen da mila okupatuko (40 2007. urteko lehenengo sei hilekoan), 39,1 industriako sektorean (40,9 2007. urtean), 47,9 eraikuntza (54 2007. urtean) eta 14,8 zerbitzuetan (14,9 2007. urtean). Hala eta guztiz ere, berriro ere gogorazi behar dugu istripu hilgarrien gorakada handia.

¹ 2007. urteko apirilean eta ekainean administrazio arazoak gertatu ziren istripuen erregistroan. Arazo hauek desbideratze esanguratsua eragin zuten gertatutakoekin lotuta, Osalanek berretsitako informazioaren arabera. Horregatik, aurretik erabilitako hileko seriea doitu da urte horretan egondako istripu guztien kopuruak aldatu gabe.